



## Ignacio Tanco, eguzki-sisteman aditua

Europako Espazio Agentzian ari da lanean urnietarra eta, aurreko astean, interes bereziko hitzaldia eman zuen Saroben / 6-7

AIURRI

### Mendien industrializazioa

Adarra-Mandoegiraino iritsiko lirateke, Urumea aldean, haize-errotak ezartzeko egitasmoak / 8-9

Osasun publikoaren defentsa aldarrikatzeko manifestazioa deitu dute Donostian / 2

Santa Ageda bezperako kantu-erronda, Andoainen eta Urnietan, datorren otsailaren 4an / 14, 16

### MATRIKULA OTSAILAREN 3TIK 14RA



## EGAPE IKASTOLA

urnietarren eskola publikoa

943009275 HLH / EIP  
943899425 DBH / ESO  
[www.egape.eus](http://www.egape.eus)

ESKURATU INFORMAZIOA

+ INFO 





## POSTONTZIA

TOPA TOLOSALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO PLATAFORMA

## Osasun sistema publikoaren alde, promesa gehiagorik ez!

Osasunerako eskubidea arrisku larrian dago. Azken urteotan, Eusko Jaurlaritzaren estrategia orokorra garatzen ari da osasun-sistema publikoa desegiteko eta pribatizazioa bultzatzeko. Osasun-negozio pribatuen aldeko estrategia horrek zerbitzu publikoaren kalitatea hondatzea eskatzen du lehenik. Horregatik zaildu egiten dute zerbitzurako sarbidea (itxarote-zerrendak handituz), edo ez dute erreferentziazko profesionalen jarraikortasuna errespetatzen, etengabe txandakatzen behartuz, eta, horrela, Osakidetzaren izen ona eta ospea ahulduz.

Osasun Publikoaren narriadura gorakor horrek, zerbitzuaren kalitate eta herritarren osasunaz gain, osasun-langileen lan-baldintzak okertu egiten ditu (lan-gainkargak, lan-prekarietatea...), eta kudeaketa autoritarioa eredu nabarmentzen du eta herritarrok erabakietan parte hartzeko dugun eskubidea urratu egiten du.

Osasungintza sektore pribatuaren eskuetan jartzeak osasun publikoa ahultzea dakar, baliabide ekonomiko garrantzitsuak kentzen baitizkio. Saihes daitezkeen erikortasuna eta heriotza-tasa handitzen du, kostuak areagotzen ditu, osasun-jardueren osotasuna desegituratzen du eta historia kliniko indibiduala pobretzen du, osasun-arretaren informazioa negozio pribatu askoren eskuetan sakabanatuz.

Bereziki deigarria da estrategia horrek Lehen Mailako Arretaren duen eragina, osasun-laguntzaren % 80 artatzen baitu. Osasun-sistemaren ardatz nagusi hori definitzen duten elementu garrantzitsuen garapen ezak edo urritasunak ahitu egin du familia eta komunitate eredu. Mendekotasun-zaintza ez

aiapatzeak edo osasun-eragile sozialetan esku-hartze faltak larritu egiten dute ereduaren funtzionamendu egokia. Bestalde, langileen eta jendarteren parte hartzeko ezintasunak eta giza baliabide eta baliabide ekonomikorik ezak eredu hori definitzen zuten funtsezko elementu gehienak kentzen dizkiote ereduari: irisgarritasuna, unibertsaltasuna, integritasuna, arretaren jarraitutasuna, ekitatea eta orientazio komunitarioa.

Desegite-estrategia horretan kokatu behar dira Osasun Zentroen eta Etengabeko Arreta Guneen ordutegien murrizketa eta zentruen itxiera orokortuak, ahaztu gabe medikurik gabeko zentroak, arreta jasotzeko beste udalerrri batzuetara egindako joan-etorriak, edo hainbat espezialitatetako profesional eza; gainera, ezin ahaztu lan-gainkarga itzela eta lan-prekarietatea (% 50 ingurukoa), ezta horien finantzazio eskasa ere.

Osasun Sailak ez du egoera hori zuzentzeko interesik, argi eta garbi ikusten da bere jardueretan:

- Osasun Sailaren 2025eko aurrekontuak % 0,35 igo dira, aurreikusitako 2024ko benetako gastuarekin alderatuta.
- Sailburuak pandemiaren aurreko itxaron-zerrendak berreskuratuko ez direla iragarri du.
- 2028ra arte profesional medikoen aurreikusitako defizita eta 2035ean aurreikusitako berreskuratzea.
- Erakunde Sanitario Integratuen "ESI" egungo eredu mantentzea (lehen mailako arretaren narriaduraren funtsezko elementua).
- Zerbitzuen pribatizazioa mantentzeko borondatea, 2025ean altxor publikoko

ehunka milioi euro desbideratuz.

- Era berean, lehen kanporatutakoak (hala nola garraio sanitarioa) berreskuratzeari uko egitea. Osasun Sistema Publikoak norabide aldaketa behar du, eta horri heldu behar zaio Euskal Osasun Itunaren Mahaitik harago. Premiazko arazoek eskatzen dituzten konponbideez gain, Mahai horrek beharrezko egitura-aldaketak adostu beharko lituzke osasun publiko doakoa, unibertsala eta kalitatezkoa bermatzeko.

Honako neurri hauek aplikatzeko gai izan beharko luke aipatutako Mahaiak: pribatizazioa geldiarazi eta sistema publikoari baliabide ekonomiko gehiago eman, Lehen Mailako Arreta indartu; langileen lan-baldintzak hobetuz eta plantilla nahikoa, egonkorra eta prekarizatu gabea bermatuz. Azken batean, kudeaketa-eredu gardena eta parte-hartzailea garatzeko gai izan beharko luke Euskal Osasun Itun horrek.

Gaur egun promesa asko entzuten ditugu, baina ez dugu aldaketarik ikusten. Aitzitik, murrizketak eta pribatizazioak ugaritu egiten dira. Horregatik, Osasun Publikoaren Defentsarako Plataformek eta manifestara sinatu dugun eragileok uste dugu beharrezkoa dela mobilizazioei eustea, egoera hori salatzeko eta osasun-sistema publiko defendatzeko.

Horretarako, otsailaren 1ean hiru herrialdeetako hiriburuetan (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) egingo diren manifestazioetan parte hartzera deitzen dugu.

### BOULEVARDETIK ABIATUKO DA, 17:00TAN HASITA, LARUNBAT HONETAKO MANIFESTAZIOA

## POSTONTZIA

EUSKAL HERRIKO TORTURATUEN SAREA BETERRI-BURUNTZA

## Euskal Herriko torturatuen sarearen deialdia



Beterrri-Buruntzako herritarrek Hernanin elkartu ziren, aurreko batean. AIURRI

Orain dela urtebete, otsailaren 13aren testuinguruan, Euskal Herriko torturatuak saretzeko asmoz martxan jarri genuen talde-sustatzailea aurkeztu genuen publikoki. Azken hilabeteetan Euskal Herriko Torturatuen Sarearen sortze-prozesuaren barnean, aurkezpen-batzarrak egin ditugu hainbat eskualdetan. Bertan, Nafarroako Torturatuen Sareko esperientzia oinarri, talde-sustatzaileko lagunek esku artean dugun erronka aurkeztu, eta berari eusteko deia egin diegu bertaraturiko pertsona torturatu guztiei.

Batzarretan 700 lagun torturatutik gora hartu dute parte, guztion artean Euskal Herri mailako prozesuan ekarpena eginenez. Are gehiago izan dira lagun saretuak, zeinetara era batean edo bestean heldu garen, izazko otsailaren 13an aurkeztu genuen erronkaren berri emateko. Azaleratu gabeko sufrimendu handia dago oraindik ere herri honetan, eta sakona da, torturak eragindako zauria. Horren isla da udazkeneko batzarren testuinguruan ehundaka lagun torturatuek sareari adierazitako atxikimendua eta pizturiko interesa.

Euskal Herriko Torturatuen sarea ehuntzen joan da, oso modu diskretu eta aktiboan, eta otsailaren 15ean Donostiako Kursalen egingen du aurkezpen publikoa eta bere ibilbidearen hasiera. Berritoren, tortura jasan duen pertsona oro bertaratzera gonbidatu nahi dugu, aitortzaren bidea torturatuok elkarrekin egiteko.

## Urnietako Gaztetxearen alde

Ez du etenik Urnietako Gaztetxearen aldeko elkartasunak. Hala, ostiral honetan, hilaren 31n, poteo musikatua izango da herrian, arratsaldeko 18:00ean. San Juan plazatik abiatuko dira, tabernaz taberna, "Urnietako gazteria gaztetxearen alde mugitzen!" lemapean.





Patxi Iribar, Oinume sagardotegiko kupelekin. AIURRI

# “Berriro txotx egiteko gogoa ematen du gure sagardoak”

**PATXI IRIBAR** OIANUME SAGARDOTEGIA

Herriko txotx-denboraldia ospatu zuten, joan den astean, Urnietako sagardo-ekoizleek, Oianumeko kupelen artean

**Erredkazioa** URNIETA

Aurten, Urnietako txotx irekiera-ekitaldian Patxi Iribarri egokitu zitzaion anfitrioiia izatea. Hilaren 6tik dute sagardotegia irekita, eta urte osoan izango da beren sagardoak dastatzeko aukera.

**Joan den astean, Oianumen egin zen herriko txotx-irekiera ofiziala eta etxean jaso zenituzten sagardo-zaleak.**

Oso ondo joan zen, pixka bat urduri, baina hasiera ona eman genion. Garrantzitsua da horrelako aurkezpenak egitea, herriko sagar-biltzaileei, sagardo-ekoizleei zein zaleei aitortza egiteko.

**Dena dela, zuek urtarilaren 6an ireki zenituzten ateak. Martxa hartu al du Oianumek, jada, txotx-denboraldian?**

Poliki-poliki, baina, normalean, otsailean hasi ohi da jendea etortzen. Asteburuez gain, astegunetan ere badugu eskaintza: astelehenetik ostegunera gauzez itxita daukagu, baina eguerditan zerbitzua eskaintzen dugu.

**Aurrera begira, agenda estu samar izango duzue, ziurrenik.**

Deika eta deika daukagu jendea, larunbat eguerdian bazkaltzeko. Gauari begira ere, bada zerbait, baita igande eguerdietarako ere. Otordu horretan, oso ondo egiten da lan. Txotx-denboraldiaz harago, guk urte osoan daukagu sagardotegia irekita. Izan ere, ondo irauten du sagardoak tenperatura baxuetan, epe luzera begira.

**Dena dela, datozen hilabeteetan etorriko zaizkizue sagardoak gehien. Nongoa da Oianumera gerturatzeko den jendea?**

Maiatzaren bukaerara arte izaten da gutxi gorabehera mugimendu handiena. Bezero askok errepikatu ohi dute esperientzia gure sagardotegian: Gasteiztik, Bilbotik, Nafarroa aldetik... Autobusetan etortzen dira. Uda-sasoian, aldiz, atzeritar ugari etortzen da, sagardoak probatzera.

**Zer nolako sagardoak dastatzeko aukera izango du zuek?**

Edateko erraza da, zapore onekoa, finean, berriro txotx egiteko gogoa ematen du gure sagardoak. **Zuenean otordua egiteko interesa duenak, nola egin erreserba?**


Erreserba egiteko bide errazena telefonoz deitzea da, 943 55 66 83.

**"ASTELEHENETIK OSTEGUNERA, EGUERDITAN, SAGARDOTEGI MENUA ESKAINTZEN DUGU"**

## Txotx 2025

### GARAIAN GARAIKOA: "TXOTX!"

Elkarrizketak, albisteak... Atal berezia webgunean  
[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)



**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia





Carlos Alamo, Ana Maria Pascual eta Francisco Javier Pastorri oroigarri bana eman zieten. AIURRI

## Aitortza-ekitaldia, odol-emaile fidelenei

Txalo-zaparrada merezi dute berriki omendu dituzten Carlos Alamo, Ana Maria Pascual eta Francisco Javier Pastor odol-emaileek. Eta beste hainbeste merezi dute urte hauetan guztietan laguntzaile aritu diren Manoli Sorondok eta Izaskun Minerrek

### Erredakzioa URNIETA

Urnietako odol-emaileek bi hilabetez behingo hitzorduari eusten diote, beste urte batez. 2025eko lehen deialdian hiru emaile fidelenak omendu zituzten. Zehazki, honako hauek: Carlos Alamo, Ana Maria Pascual eta Francisco Javier Pastor. Jorge Segurado alkatearen, Izaskun Miner Urnietako Odol Emaileen Taldeko kidearen eta Luke Goñi Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteko ordezkari, erizain eta aldi berean Urnietako zinegotzi oiharen eskutik, esker oneko oroigarriak jaso zituzten. Carlos Alamo Pinedak 75 txandatan eman izan du odola, Ana Maria Pascual Centenok 80tan, eta, Francisco Javier Pastor Antonek, berriz, 100 alditan.

### 1985eko urtarrilean, lehen odol emate saioa

Izaskun Minerrek eta Manoli Sorondok Javier Lopez, Pilar Iriondo eta Gloria Etxanizekin batera jarri zuten martxan Urnietako Odol Emaileen Taldea,

orain 40 urte atzera. 1985eko urtarrilean antolatu zuten lehenbiziko odol emate saioa eta deialdiak arrakasta izan zuen, bertara 47 herritar hurbildu baitziren. Urteak joan, urteak etorri, kopuru hori mantendu izan da Urnietan. Bataz beste, 40-45 odol-emaile agertu ohi dira bi hilabetearen behin egiten diren deialdietara.

Taldearen hasierako boskote-tik Minerrek eta Sorondok jarraitu dute, gaur arte. Ezinbesteko zeregina burutzen dute, erizainen eta medikuen ondoan. Ezin aipatu gabe utzi Eugenia Rodriguez eta Santiago Sanchez laguntzaile berriak. Gaztelekuko hitzorduetan banatzen dituzten pintxoak ederki asko estimatzen dituzte odol-emaileek.



### Urteko lehen hitzordua, Urnietan



Hiru herrikide odola ematen, urteko lehen saioan. AIURRI



Eugenia Rodriguez eta Santiago Sanchez, Miner eta Sorondorekin batera. AIURRI



Manoli Sorondo eta Izaskun Miner, jaki goxoak eskuetan. AIURRI



Urnietako  
udala





Astearte arratsaldetik itxita dago Kaletxikiko tunela, autoentzat. AIURRI

## Ama Kandida, trafikora zabalik, eta Kaletxikiko tunela, itxita

Kaletxiki eta Bazkardo lotu dituzte berriro. URA agentzia, orain, Kaletxikiko tunelean ari da lanean

### Erredakzioa ANDOAIN

Meritu handia dute Buruntzako, Bazkardoko, Kaletxikiko, Gudarien etorbideko eta Leizotz aldeko bizilagunek eta inguruko langileek. Ziako errekaren bideratze lanek albo-kalte zuzena sortu baitute: autoen joan-etorria nabarmen mugatu da. Izan ere, hilabete luzez Ama Kandida itxita egon da eta, esaterako, Kaletxikitik Bazkardora joateko itzulginguru handi samarra egin beharra zegoen. Hilabeteetako lanen ondorioz, baipasa jarri dute Ama Kandida etorbidean eta, horri esker, Kaletxikitik

Bazkardo aldera edo N1 nahiz A15 errepideetara hurbiltzeko aukera ireki dute.

Andoaingo Udalak argibideak eman zituen aurreko astean eta, iragarri bezala, Ziako errekaren bideratze-lanak segida izango du Kaletxiki eta Arantzibia kaleen artean. Horren ondorioz, astearte arratsaldean, Kaletxikiko tunela autoentzat itxi zuten. Aurrerantzean, Kaletxikitik Arantzibiara edo Leizotzera autoz gerturatzeko Gudarien etorbidearen zuzengunean aurrera egin beharko da. Tunela, egun, oinezkoentzat zabalik dago.

## Martxoaren 8ko egitaraua iragartzeko kartel lehiaketa

Gipuzkoan bizi diren 16 urtetik gorako emakumeek har dezakete parte, hilaren 6ra bitarte

### Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalak egitarau oparoa antolatu ohi du martxoaren 8ari begira. Egitaraua aberasteko kartel lehiaketa antolatu ohi du eta aurtengo deialdia otsailaren 6an amaituko da. Ezinbestekoa izango da kartelaren goiburua honako hau izatea: "Martxoak 8: Emakumearen Nazioarteko Eguna - 2025".

Sari bakarra izango da, 500 eurokoa, SALKINera atxikitutako merkatalguneetan kontsumitzeko. Lanak Bastero Kultur-gunean aurkeztu behar dira otsailaren 6an, honako ordutegi honetan: 10:30-13:30 / 17:00-19:00.

### Kartelaren xehetasunak

65 cm-ko altuera eta 31 cm-ko zabalera izango dute kartelek, eta irudia neurri horietan edo horien proportzioan aurkeztu beharko da.

Xehetasun gehiago Andoain.eus webgunean aurki daitezke.



Alkatea eta ordezkari politikoak, udal pleno aretoan. AIURRI

## Adostasun zabalarekin onartuko dira 2025eko aurrekontuak

Ostegun honetako plenoan urteko kontuak eztabaidatu eta bozkatuko dituzte, 19:00tan hasita

### Erredakzioa ANDOAIN

Ostegun honetan 2025eko Udal aurrekontu proposamena eztabaidara eta bozketara eramango du Gobernu taldeak (EH Bildu). Aurreko astean, agerraldi banatan, Andoni Alvarez Lete alkate buru den alderdiak akordioa islatu zuen EAJ-PNVrekin eta Elkarrekin Podemosekin. Gauzak horrela, proposamena aurrera ateratzeko gehiengo zabalaz ziurtatuta dauka gobernu taldeak. PSE-EEK, iaz egin bezala, plenoaren aurreko egunetan proposamen-sorta iragarri du.

### Sozialisten proposamenak

Allurralde, eta Ambrosia Olabide eraikina, Erretiratuen Etxea eta Gizarte Zerbitzuak... Udal instalazioen eraberritzeari loturiko proposamen sorta egin du. Beste proposamenen artean dira ibilgailu elektrikoak kargatzeko gune berriak sortzea, alokairura bideratutako laguntzak 35 urtera zabaltzea, bideokamara gehiago jartzea: "Sozialistok espero dugu proposamen horiek aurrekontu-proiektuan txertatzea, Andoainen lan egiteko, elkarrekin bizitzeko eta gozatzeko leku hobeak izango baita".

## Herri Ekimen Legegilearen aldeko sinadura-bilketa

Larunbat honetan ekimen berria abiatuko dute pentsiodunek, Andoainen

### Erredakzioa ANDOAIN

Pentsiodunen Mugimenduak pentsio osagarria bermatzeko lege-proposamena aurkeztu du Gasteizko Legebiltzarrean. Honatx, sinadurak jasotzeko egitaraua:

- Zumea plaza: ostiralero, 18:30etik 20:30era.
- Eskola kalea-Juanita Alkain plaza: asteartero eta larunbatero, 09:00-13:00.
- Goikoplaza-Nafarroa plaza: larunbatero, 11:00-13:00.
- Arteta 1: asteartero, ostegunero eta ostiralero: 09:00-13:00.

### Jukutria politikoein, haserre

Espainiako Kongresuak, aurreko astean, bertan behera utzi zuen garrantzi handiko legebekretua PP, Vox, Junts alderdien botoekin. Ondorioz, etenda geratu ziren hainbat neurri: pentsioen igoera, garraio-laguntzak luzatzea edota DANAK eragindako hainbat laguntza osagarri. Gertaturikoa ez da oharkabea igaro Andoaingo pentsiodunentzat: "Pentsioak truke-moneta dira oraindik, eta ez oinarritzeko eta funtsezko eskubide bat".

# MATRIKULA LIBREA

## HIZKUNTZA ETA MAILA ESKAINTZA 2025

**Frantsesa: A2 - B1 - B2**  
**Ingelesa: A2 - B1 - B2 - C1**

**Matrikula eskaera egiteko epea:**  
**Otsailaren 3tik 10era**

**Gutxienezko adina:**  
**16 urte 2025ean betetzea**

**Prezioa:**  
**36,18€**

**www.eitolosaheo.hezkuntza.net**  
**info@eitolosaheo.net - 943 89 96 22**

INFORMAZIOA

# Bi hamarkada, eguzki-sistemari begira

Ignacio Tancoren eskutik, bidaia galaktiko batean murgiltzeko aukera izan zuten pasa den astean herritarrek, Saroben izandako hitzaldian. Europako Espazio Agentzian, barruko eguzki-sistemako sailburua da urnietarra eta bere lan-ibilbidea izan zuen hizpide



Ignacio Tanco urnietarra, aurreko astean, Saroben. AIURRI

**Alba Cabrera Jauregi URNIETA**  
Oinak lurrean tinko baditu ere, zerura begira egotea du maite Ignacio Tanco urnietarrak: Darmstadt hirian (Alemania) kokatutako Europako Espazio Agentziako (ESA) ingeniaria da, zehatz esanda, barruko eguzki-sistemako sailburua. Bada, gutxi gorabehera, azken hogeitaz urteetan, misio espazialean aritu da burubelarri lanean, aurrera-atzera, arreta eguzki-sistemaren zirrikituetan ipinita. Hori horrela, bere ogibidearen gaineko ñabardurak emateko, hitzaldia egin zuen Saroben, hilaren 22an. Protagonistaz gain, bertan izan ziren Elhuyar Fundazioko Guillermo Roa eta Aranzadi Zientzia Elkarteko Virginia Garcia, aurkezpen-lanetan. Gainera, partaidetza handia izan zen hitzorduan, askotariko zalantzak argitzeko aukera izan baitzuten herritarrek, bost zentzumenak ondo baino hobeto zorrozuta, unibertsoaren isilekoak ezagutzeko irrikaz.

## Rosettaren prestaketa-lanak

Barruko eguzki-sistemako burua da Tanco. Zer esan nahi horrek, baina? Eguzkiaren eta Marteren arteko tartean izaten diren misioen koordinazioan dabilela, nahiz eta asteroide-gerrikotik harago ere zenbait operazioetan parte hartzen duen. Hala, begirada atzera botata, mende berriaren hasieran kokatuta ekin zion hitzartzeari, 2001 urtean lurreratu baitzen Tanco Europako Espazio Agentzian. “Orduantxe hasi zen ESA bultzada ematen esplorazio espazialari”, du gogoan protagonistak, “Churiumov-Guerasimenko kometara Rosetta izeneko zunda bidali nahi zutela erabaki zen, hura ikertu eta eguzki-sistemaren gaineko informazio gehiago edukitzeko; kartografiatuta genuen, bagenekien, nahiko zehatz, non zegoen”. Hala, printzipioz, bertara iristea posible zela ondorioztatzen zuten ikerketak egin da, misioa martxan jartzea erabaki zuten Tancok eta bere taldeak: “Hori bai, ez zegoen nahikoa teknologiarik, edo ez geneukan hara eramango gintuen prozesuen zein eragiketen eza-gutzarik”.

Nola egin, orduan? Badira espazio-bidaia batean falta ezin diren osagaiak, besteak beste: propulzioa, orientazioa, energia eta komunikazioa. Horietan arreta ipinita, bide eman zioten mi-

sioari. Propulzio kimikoa erabiltzea erabaki zuen lantaldeak, Tancok adierazi bezala: “Erlatiboki, belaontzien aroan gaude oraindik, ez baitago Lurretik kometa batera transferentzia zuzena egiteko adina erregai ontziratzeko modurik”. Zailtasun horri erantzuteko, grabitatearen laguntzarako maniobran oinarritutako bidaia diseinatu zuten: planeta baten grabitazio-eremutik ahalik eta gertuen igarotzean datza, horrek satelitea desbidera dezan eta abiadura handitu diezaien, helmugara iristeko bidean. “Oso teknika eraginkorra” delakoan da Tanco, erregaia aurrezten delako; alabaina, kontrara, denbora-tarte luzeagoa behar izaten da. Rosettaren kasuan, hamar bat urte pasatxo.

Itsas-nabigatzaileek astrolabioa erabili ohi zuten modu berean, izar-bilatzailea darabilte espazioa esploratzen dutenek, baita ESAk ere: izarrek identifikatzen dituzten kamarak dira, adituaren hitzetan, satelitearen kokapen eta orientazio zehatzaren berri eman eta ibilbidea diseinatzeko baliagarriak. Horrekin batera, Tancok esan bezala, energia-iturri moduan, “ezinbestekoak” izan zituen Rosetta zundak eguzki-panelak, distantzia sakonetan jarduteko, izan ere, eguzkiaren erradiazioa oso txikia izango zela aurreikusten zuten, behin kometara iritsita.

Dena dela, horrek guztiak ez luke zentzurik izango komunikazio-sistema egokia gabe. Robotikoak dira ESAk darabiltzan zunda guztiak, alegia, gutxieneko autonomia izan arren, langileen aginduen menpeko dira. Bada, “35 metroko diametroa duen hiru estazioko sare bat” sortu zutela azaldu zuen protagonistak hitzaldian: “Eta horrela iritsi zen 2004a, hamar urte iraun zuen misioari hasiera eman zion urtea, eguzki-sisteman zehar egindako biraren abiapuntua”.

## Zundaren hibernazioa

Misioaren hasierako bospasei urteetan, gutxi gorabehera, Lurraren eta Marteren arteko joan-etorrian egon zen Rosetta zunda, planeten grabitatearen laguntzarako maniobra egin eta abiadura irabazteko asmoz. Behin planeta gorriaren eta Jupiterren artean kokatutako asteroide-gerrikoa zeharkatzen hasita, Lutetia asteroidea erabili zuten Rosettaren tresnak probatu eta



# Herrikide askoren arreta bereganatu zuen Ignacio Tancoren hitzaldiak



Hamaika galdera egiteko aukera eduki zuten urnietarrek. AIURRI



Guillermo Roa (Elhuyar) eta Virginia Garcia (Aranzadi) solaskide izan zituen. AIURRI

dena ondo zegoela ikusteko. Puntu horretatik aurrera, azpiegitura-arazo handiak izaten hasi zirela ekarri zuen gogora hitzaldian Tancok: “Adibidez, eguzki-panelak nahikoak ez zirela ikusi genuen, eta, horregatik, satelitea itzaltzeko arriskua areagotzen zuen horrek”. Oztupoari azkar erantzunda, zunda itzaltzeko erabakia hartu zuen lantaldeak 2011n, bizpahiru urtez, kometaranzko bidea hartuta. Zeharkaldi espaziala hamarkada batera iritsi zenean piztu zuten berriro ere zunda, “oso gertu” baitzeuden, jada, helburutik: “Kometa izar-hondoaren kontra mugitzen ikusi genuenean, krisialdia izan genuen, konturatu baikinena gasa eta hautsa igortzen ari zenean iritsiko ginela bertara, eta horrek arazo larriak sortuko zizkigula”. Hori gutxi balitz bezala, kometatik kilometro gutxira zirela, ezusteko desatseginarekin egin zuten topo: ez zen-eta espero zutena, uste baino forma irregularragoa baitzeukan. Ondorioz, aski zailtzen zuen horrek orbita egonkor bat ezartzea, erregai-kopuru handi samarra erabiliz, maniobrak egiteko. Eztabaidak eztabaida, lurreratzemodulua askatzea erabaki zuten, Philae, baina huts egin zuen azken horren lurreratzepiezpiegiturak eta errebotatu egin zuen kometan pausatu aurretik. Labar baten itzalean lur hartuta, eguzki-energia behar bezala biltzea eragotzi zion horrek Philaeri. Atzera-kontaktari ekin zion ESAk, orduan, 36 ordu izan bai-

tzituen Tancoren aditu-taldeak ahalik eta informazio gehien batu ahal izateko, bateriarik gabe gelditu aurretik. Ildo beretik, Rosettarekin jarraitu zuten misioa, kometaren nukleoaren inguruan, baina une horretan ere arazoak izan zituztela adierazi zuen Tancok hitzaldian: “Eguzkikira gerturatzen ari ginen, eta ekaitza sartu zen, hauts-eta gas-emisioa nabarmen biderkatuta”. Erregai-xahuketa handia eskatzen zuen baldintza horietan maniobrak egiteak; beraz, ikerketalanetan jarraitu zuten, harik eta erregai-tanga hustu arte: “Kometaren azalean utzi dugu Rosetta, etorkizuneko belaunaldiren batek han aurki dezan, espazio-arkologia egiteko”. 2016. urtean amaitu zen Rosettaren bidea, eta, Tancoren urtez, esplorazio-lanetarako teknologia “eraginkorra” garatzea lortu zuten misioiari esker. Hortaz, etorkizuneko beste egiteko batzuen oinarri izan zen misioa.

## BepiColombo, 2018ko urria

Rosetta misioa amaitu eta handik pare bat urtera, Merkurio izan zuten begiz jota Tancok eta bere taldeak, planetaren xehetasunak ikertzeko helburuz: “Eguzkitik gertuen dagoen planeta da sisteman eta biziki zaila da hara iristea, energia-kopuru handia behar baita, grabitazio-putzuan duen kokapenagatik”. Merkuriora iritsiera 2026rako aurreikusita badago ere, espedizio “konplexua” delakoan da ingeniaria, baldintza gogorre aurre-

egin behar baitie BepiColombok: “Hondatzen hasia da ontzia, eta arazoak pilatzen ari dira, baina, helburua betez gero, lorpen handia izango da espazio-agentziarentzat”.

## Solar Orbiter, 2020ko otsaila

BepiColombo misioan eskuratutako ezagutzak baliatuta diseinatutako espedizioa da Solar Orbiter, eguzkitik oso gertu kokatutako behategia, urnietarrek esan bezala: “Eguzkiaren gainazaletik gertu orbitatzeko aukera du zuntzak, horrek bertako behaketak egitea ahalbidetzen digu, egun, inork gutxik lortu dituen neurketa zehatzekin”. Hizlariaren esanetan, osasuntsu dagoen misioa da, ezkutu termikoarekin egiten baitu lan Solar Orbiterrek, eguzkitik babesteko: “Primeran funtzionatzen jarraitzen du, eta, beharbada, urteak eta urteak izango dugu martxan”.

## Juice, 2023ko apirila

Jupiterren izoztutako ilargiak ditu helburu Juice misioak. ESAko langileak adierazitakoaren arabera, dozenaka ilargi ditu planeta horrek, baina horietako lau, Galileoren ilargiak, “mundu zoragarriak” dira. Sumendiz josita omen dago Io ilargia eta gainerako hirurak, Europa, Ganimes eta Calisto, “hein handi batean”, izotzez osatuta daude. Kontinentearen izen berbera daraman ilargiaren kasuan, gainera, gainazalaren azpian, ur gaziko ozeanoak daudelako zantzuak topatu ditu ESAk: “Bertan

bizigarritasuna bermatzeko baldintzak ote dauden argitzen ahalginduko da Juice, izan ere, litekeena da, Lurra ez izatea bizia egon daitekeen leku bakarra. 2031ra arte iraungo duen misio liluragarria da Juice”.

## Hera, 2024ko urria

Tancok parte hartu duen egiteko berriena da, ESAren lehen misioa, planeta-defentsari begira. Rol garrantzitsua jokatu zuen Tancok Heraren jaurtiketan, hegaldi-zuzendaria izan baitzen: “Dinosauroen aurrean, guk abantaila daukagu, Lurraren aurka jo dezakeen gorputzak identifikatu zein desbidera ditzakegu-eta, gure planetaren aurka talka egin aurretik”. Aferan, ibilbide laburra egina dagoela azaldu zuen Tancok hitzorduan, oro har, marko teorikoa nabarmen garatua izan arren, orain gutxi hasi baitira operazioak egiten. 2022an, esaterako, Didymos asteroidearen Dimorphos ilargiaren aurka jo zuen zundaren operazioa gauzatu zen. Bada, beren harridurarako, uste baino gehiago desbideratu zen gorputza eta misio horretan sortutako galderei erantzuteko asmoz bidali dute Hera espaziora: “Didymos eta Dimorphos ikertu nahi ditugu, mota horretako asteroide-sistemek nola funtzionatzen duten hobeto ezagutzeko eta desbideratze-zinetikoak gehiago jakiteko, planeta-defentsa eraginkorragoa izateko bidean”.

## Etorkizunari begira

Asezina da ESAko langilearen jakin-mina. Hala, aipatutako misioez gain, beste batzuetan dabil murgilduta. Batetik, ExoMars egitasmoan dago lanean, Martera planeta bera ikertuko duen ibilgailu (rover) bat bidalita. Marteren azaleraren azpitik introspekzioak egingo diren “lehen aldia” dela jakinarazi zuen Tancok, Sarobeko hitzorduan: “Hor azpian, izoztutako ura egoteaz gain, biomarkatzailak existitu daitezkeelako sumoa daukagu”. Bestetik, Ramses zunda bidaliko dute, zuzen-zuzenean, Apofis asteroidea gertutik kontrolatzeko. 2029an Lurretik oso-oso gertu igaroko den gorputza da, behar bada, Tancok azaldu moduan, orbita eta satelite geogonkorren azpitik: “Gure zunda Apofisekin batera mugituko da, 2029an, asteroideak Lurraren albotik hegan egiten duen bitartean. Horrela, gertutik ikusiko dugu zein portaera duen gorputz horrek”. Azkenik, eguzkitik urruti samar kokatzen den Saturnora iritsi nahi du teTancok eta ESAko taldeak, Entzelado ilargiak gordetzen duen “misterio handia” hobeto ezagutze aldera. Geiserrak ikusi dituzte Saturnoko ilargian, hau da, Tancoren taldeak ondorioztatu bezala, posible da izotz-gainazalaren pean mugimendu tektonikoak egotea, azpian egon daitekeen ur gaziko ozeanoak eraginda: “Horrenbestez, gazteak animatu nahi ditut etorkizunetarako lan-aukeratzen har dezaten!”.



Astelehen arratsaldean egin zuten egitasmoaren aurkezpen ekitaldia Hernaniko plazan. Urumea bailarako hainbat herrikide hurbildu zen hitzordura. AIURRI

# Inguruko mendien industrializazioaz ohartarazi dute

Urumea bailaran proiektatu diren bi zentral eolikoei desadostasuna agertzeko “Urumeako Mendiak Bizirik” ekimena aurkeztu zuten hainbat herritarrek Hernanin, astelehen arratsaldean

**Xabier Lasa** HERNANI

“Gure inguruko mendietan egin nahi dituzten makro-proiektu eolikoek auzia aztertu eta zentzugabekeria hau geldiaraztea” da ekimenaren helburua, aurkezpenean adierazi zuten. Urumea bailarako goi mendietan azken aldian proiektatu diren bi zentral eolikoek gaineko informazioa eman zuten

lehenengo eta behin, gaia kokatze aldera. Horrela, “2024ko uztailan, FE Energy enpresako ordezkariak agertu ziren Aranon eta proiektuak ukitzen dituen beste herrietan. Repsol multinazionalarekin lotura estua duen aholkularitza-enpresa honetako ordezkariak adierazi zuten, Arano, Goizueta, Hernani, Berastegi, Elduaien, eta

Ereñotzu inguruetako mendietan makroproiektu bat egiteko daukaten asmoa. Herri horiek zuzenki kaltetuak izango dira, baina sarbide eta ihesbideekin beste hainbat herritan ere izango luke inpaktua. Horren haritik jakin genuen, beste enpresa bat ere, antzeko proiektu bat garatzen ari dela eremu berean”.

Bi proiektuen gaineko datu gehiago eman zituzten, “Repsol martxan jarri nahi duen makroproiektua, Arano, Ereñotzu, Hernani, Goizueta, Berastegi eta Elduaien egongo litzateke kokatuta. Makroproiektu honek 100MWko zentral erraldoia proposatzen du, gutxienez 205 metro altuerako 14 aerosorgailutan banatuta. Endesak aldiz, Hernani eta Pagoaga (Ereñotzu) artean kokatu nahi du 33MWko proiektua”.

## Bestelako eredu energetiko baten alde

Kritiko agertu ziren bi proiektu horiek bultzatzen dituzten enprekin eta beren interesekin: “Enpresa horiek, trantsizio energetikoaren izenean, gisa honetako makro-proiektuak ezartzen jarraitu nahi dute Euskal Herri osoan. Herri inguruetan CO2a xurgatzeko hain beharrezkoak ditugun ingurune naturaletan, atzera-ezinezko txikizioak eragin eta lur-eremu publikoak erabiliz, multinazionalen kapital pribatua aberasten jarraitu nahi dute”.

Europatik datozen funtsek bultzatutako proiektuak direla gogorarazi zuten, eta politika energetikoa bestelakoa behar duela izan aldarrikatu zuten: “Horren energia kontsumo altua

dugun gizarte eredu honetan, lurraldea eta bertako aberastasun natural, kultural eta soziala errespetatuko dituen eta behar energetikoei erantzungo dien aldaketa ekonomikoa eta soziala da benetan behar duguna. Hori ekiditeko, aurrez antropizatzutako eremuak berrerabili daitezkeela uste dugu energia berriztagarriak sortzeko gailuak jartzeko.

Energia berriztagarrien arloa kudeatzeko garaian, bestelako eredu proposatu zuten: “Lurrari loturiko jendea garen heinean, lurraren gaineko erabakien eta energiaren gaineko kontrol herritarra bermatuko duen eredu baten alde gaude. Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu, energia berriztagarrien gaineko proiektuak, herritarrekin eta eragile publikoekin batera lantzea, eta herritarrek erabakitze aukera izatea haien diseinuan (dimentsioan, kokalekuan...) eta kudeaketan.

## Mendien industrializazioarekin kritiko agertu dira

Urumean proiektatu dituzten bi zentral eolikoek “Urumeako bailarako mendien industrializazioa” dakartela eta kalte larriak eragingo dituztela “naturaren eta giza ingurumenean”, adierazi zuten.





Egitasmoaren aurkako pankarta ikusgai zegoen urtarrilaren 1ean, Besabin. Atzean, Adarramendi. AIURRI



Adarra-Mandoegi mendilerroa hartuko lukete aurrikusitako bi egitasmoek. Irudian, Adarrako gaina. AIURRI

Iritzi irmo hori babesteko, honako gogoeta hauek zerrendatu zituzten:

- Arano aerosorgailu erraldoiez inguratuta geldituko litzateke, herriaren biziraupena arriskuan jarritz.
- Urumea bailarako mendialdea, Gipuzkoako Azpiegitura Berdea osatzeko lehentasunezko eremuetako bat eta Aiako Harria, Urumea eta Leitza-rango naturguneak elkartzen dituen korridore ekologikoa da. Hori eteteak landare eta animalia espezie askoren biziraupena arriskuan jarriko luke.
- Urumea arroa eta bere ertzak Kontserbazio Bereziko Eremu izendatua daude. Eusko Jaur-

laritzak berak izendatu zituen europar komisioren bidez eta bailaran egiten diren eraldaketek, zuzenean eragiten diote horien osasunari.

- Lur-mugimenduek balio-naturalistiko handia eta kalitatezko urak dituzten hainbat iturburu eta erreken kaltetzea.
- Lur desjabetzeak eta basalurren birkalifikatzea ekarriko lituzke.

### "TRANSIZIO ENERGETIKOAREN IZENEAN, MAKRO-PROIEKTUAK EZARRI NAHI DITUZTE"

• Herritarren bizi-kalitatean eta osasunean kalte nabarmenak eragingo lituzkete (kutsadura akustikoa, infrasoinuak, argi-efektuak, e.a.).

- Abeltzaintza, nekazaritza eta aisialdiko jardunekin batearazina da.
- Aerosorgailuetara heltzeko bideak zabaltzeak eta egokitzak, bolumen handiko lur-mugimenduak dakartza, lu-

### "BI ZENTRAL EOLIKOEN URUMEAKO BAILARAKO MENDIEN INDUSTRIALIZAZIOA DAKARTE"

rraren artifizializazioa eta pobretzea eraginez.

- Ondare historiko, arkeologiko eta kulturalen eragin nabaria izango du. Arano, Hernani eta Goizuetako mendietan Onddi-Mandoegi estazio megalitikoa kontserbatzen da, Euskal Aautonomia Erkidegoan babestua dagoena eta proiektu horiek zuzenean kaltetua izan daitekeena.

### "KONTROL HERRITARRA BERMATUKO DUEN EREDU BATEN ALDE GAUDE"

### Datozen mobilizazioetan parte hartzeko gonbita

"Urumeako Mendiak Bizirik" herri ekimena irekia dela esateaz batera, deia luzatu zieten bere helburuekin bat egiten duten elkarte, herritar zein edozein ekintzaileri "makro-proiektu eoliko hauek geldiarazteko eta gure mendiak defendatzeko antolatuko diren ekintza eta mobilizazioetan parte har dezaten". Aldi berean, erantsi zuten Euskal Herri osoan abian diren hainbat proiekturen aurrean sortutako beste talde eragileekin bat egiten dutela, "gure auzian behar dugun babesa eta laguntza eskuratuz, eta aldi berean beste lekuetako borrokekin bat eginez".

## Elkartasuna, Aroztegiko auzipetuekin, manifestazioaren atarian

Ingurumenaren eta lurraren aldeko pertsona ugari bat egingo du, larunbat honetan, Iruñean. Bertan deitu baitute manifestazioa Aroztegiko auziperatuekiko elkartasuna adierazteko. Nafarroako Baztan bailarako Lekarozen kokatzen da auzia. Biztanle gutxi udalerrria da eta bertan hirigintza-egitasmo handi samarra egitekoak ziren. Nagusiki, luxuzko ehunka etxebizitza, hotela eta golf zelaia. Egitasmoaren aurka protesta egin zuten 2021eko udaberrian eta protesta horietan parte hartu zuten hainbat laguni zigor handi samarra ezar diezaiokete. Antza, guztira, zazpi lagunentzat hogeitakortu kartzela zigorra eta 56.000 euroko isunak. Auziperatuek agerraldia egin zuten eta BERRIA egunkariak haien adierazpenak jaso zituen: "Taldea kriminal antolatu bat izatea eta derrigortze eta bortxa delitu larriak

leporatzen zaizkigu. Inposizioari desobedienciazkin erantzuteagatik etorri da zigor eskaera. Zigor eskaera horrekin talde kriminal batek obra gelditu duela sinetsarazi nahi dute. Horrela, herrien borrokei zilegitasuna kendu eta isilarazi nahi gaituzte".

### Manifestazioa, larunbat honetan

"Lurraren defentsan, kriminalizaziorik ez! Aroztegia gelditu!" lelopean, otsailaren 1ean Iruñean manifestazioa egingo dute. Deialdiarekin bat egin dute Euskal Herri osoko eragileek. Tartean dira, Euskal Herriko Bilgune Feminista, Gipuzkoako Mendizale Federazioa, EHNE Gipuzkoa eta Urumeako Mendiak Bizirik ekimena. Azken horiek elkartasuna adierazteko argazkia ateratu zuten.



Larunbat honetan manifestazioa deitu dute Iruñean. AIURRI



# Punk-rock jaialdia, Andoaingo Gaztetxean

Jardun koordinadorak Buruntzaldeko Elkartasun Eguna antolatu du Andoaingo Gaztetxean, otsailaren 1ean. Gorroto Bala eta Chuleria, joder! punk-rock talde indartsuek joko dute bertan

## Erredakzioa ANDOAIN

Isuna jaso berri du Aske antolakundeak, joan zen abenduaren 30ean Arabako Zaballako preso-ondorioz egindako martxaren ondorioz. Izan ere, Eusko Jaur-laritzako Barne Sailak, Ertzaintzaren txostena baliatuta, martxan parte hartu zuten 128 pertsoneri 1.200 euroko isuna ezarri zien. 153.600 eurokoa da, guztira. Jaialdi solidarioaren antolatzaileek egoera salatu dute: "Euskal preso politikoko elkartasuna kriminalizatzen dute, eta bide batez, antolakundearen zein Jardun Koordinadorearen ekimena mehatxatu eta oztopatzen dute. Euskal Herri langilea, ordea, ez dute hain erraz kikilduko".



Aiztondoko eta Oiartzungo gazteek osatzen dute Gorroto Bala. GORROTO BALA

## Gorroto Bala eta Chuleria, joder! taldeak, zuzenean

Bizkaiko Ezkerraldeko lau musikariek osatzen dute Chuleria, joder! taldea. Rock doinu gogorak egiten dituzte, erdaraz nahiz

euskaraz abestuta. Iaz, Haritz Harreguy Usurbilgo soinu-technikariak ekoiztutako zazpi kantuko diskoa aurkeztu zuten. Gorroto bala, aldiz, Aiztondoko

eta Oiartzungo gazteek osatzen dute eta abenduan kantu berriak grabatzen aritu dira Tolosako Bonberenean, Eguzki Azkarate-ren gidaritzapean.



Zinema emankizuneko protagonistak, Bastero Kulturunean. AIURRI

## Fresnedaren eta Fernandezek lanak, ikasleen aurrean, ikusgai

Andoaindarraren "Amets hegalaria" eta Fresnedaren "Errotatiba" laburmetraiak ikusgai Bastero Kulturunean

## Erredakzioa ANDOAIN

Batxilergoko eta ESCIVIKo ikasleen aurreko emankizuna izan zen, Ainhoa Aiertzak gidatuta. Bertan izan ziren Arrate Fernandez zuzendaria eta Lur Usabiaga aktorea, "Amets Hegalaria" film-laburraren xehetasunak emateko prest. Eta, bestalde, "Errotatiba" aurkezten aritu ziren Iratxe Fresneda zuzendaria eta Txelu Medina ekoizlea.

Pertsonen arteko giza-harreman gorabeheratsuak eta beraien joan-etorri emozionalak azaldu nahi izan ditu Fernandezek 19 minutu irauten den film labu-

rrean. Bullying-a, suizidioa eta beste zenbait gai ageri dira, eta zuzendariak hori guztia naturaltasunez jorrazteko gogoia zuela aitortu zuen. Laguntasunean oinarritutako harremanen aldeko mezua zabaldu nahi izan du zinemagileak.

Iratxe Fresnedak 8 minutu irauten duen lan esperimentalararen aldeko apustua egin du. 1998an poliziak itxi zuen Egin egunkariaren errotatiba. Testigantzetara jo beharrean lan subjektiboa, pertsonalagoa egiteko hautu artistikoa egin du.

ZOKKETA

## DANTZA

Aiurriko harpidedun izateak saria dakar

### AiurriKIDeen artean 2 sarrera zozkatuko ditugu

Parte hartzeko modua:  
Idatzi "OTS", zure izen-abizenak eta bidali:  
\* Whatsapp: 619 163 537  
\* E-posta: [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus)

**Okm:** batzen gaituen distantzia

Egin zaitoz AiurriKIDE

AIURRI KIDE

## "OTS, Garraxi mutuak, ixiltasun dantzatuak"

Haatik Dantza Konpainia

**Otsailak 16, igandea**  
**19:00. Sarobe, Urnieta**

*"HERRI GOGOA", Euskal Herriko lehen zigilu diskografikoan islatutako mugimendu kultural abangoardista berrinterpretatzeko bultzada gisa sortzen da. Zentsura zela eta, zigilu hori inoiz ofizialki existitu ez bazen ere, berrehun diskotik gora argitaratzea lortu zuen, euskal kultura biziberritu eta berritzeko helburuarekin.*

**Zuzendaritza eta Ekoizpena:** Aiert Beobide eta Iurre Aranburu.  
**Koreografia:** Jone San Martin eta Haatik. **Dantzariak:** Aiert Beobide, Amaiur Luluaga, Iñigo Etxeberria, Itzel Vela, Jon Arsuaga, Leire Romero, Libe Sukia, Nagore Zabala. **Eskenografia:** Ikerne Giménez.





Javier Urriza erremontearen historia bizia da. ORIAMENDI

# Urriza txapelkun handiaren agurra

**ERREMONTEA** Javier Urriza Torres izarrak agurra iragarri du, 18 urteko ibilbidea osatu eta 30 txapel lortu ostean. Erremontari txapelketa izango da profesional gisa lehiatuko duen azkena. Eta, ekainaren 28an, agurreko partida. Nola ez, Galarretan

**Erredakzioa** URNIETA

"Erremontea uzteko erabakia hartu dudala jakinarazi nahi dizuet". Hitz horiekin ekin zion astelehen goizean bere agurraren iragarpenari. Ez da erraza Urriza kantxatik kanpo irudikatzea, Galarretako izarren artean bera baita ibilbide oparoena duena.

Hamaika partida iragarri ditu agurru aurretik eta horietara

joateko sarrerak dagoeneko salgai daude.

**Urrizaren adierazpenak**

Agerraldian adierazi zuen bidea ez dela erraza izan, baina behin amaierara iritsita gogoan hartu zituen gertukoak eta erremontean bidelagun izandako guztiak. Inor gutxi utzi zuen aipatu gabe: "Hori guztia ez da posible izan pertso-

na askoren laguntzarik gabe, eta horiei nire esker onik beroena adierazi nahi diet: debutatzeko aukera eman zidan enpresari eta gaur egungoari, hainbeste urtetan erremonte profesionalean lehiatzeko eta kirol honetaz gozatzeko aukera emateagatik. Eskerrik asko erremontea mantentzeko eta berrabiarazteko egin duzuen lanaga-

rik; nire kideei, egunez egun hobetzen ahalegintzera bultzatzeagatik eta kantxa barruan eta kanpoan partekatutako une handiengatik. Bizitza osorako esperientziak eta lagunak ermaten ditut; zaleei, zuen maitasunagatik eta etengabe helarazi didazuen babesagatik. Frontoietan elkar ikusten jarraituko dugu, erremontez elkarrekin gozatuz; nirekin lanean arituko den talde osoari: prestatzaileei, fisioei, botileroei... Kideak baino gehiago izan zarete; lagunak zarete, baita familia ere. Mila esker hainbeste orduko dedikazioagatik; eta, azkenik, nire familiari, zuen baldintzarik gabeko laguntzagatik. Badakit sufriarazi eta gozarazi dizuedala, baina beti egon zarete nire ondoan. Nire bizitzako gauzarik garrantzitsuenak zarete".

**"BETI LAGUNTZEN ZAITU KANTXAN. KIDE APARTA IZAN DA"**

ARITZ ZUBIRI

**"BALIO ONENAK TRANSMITITZEN DITUEN ERREFERENTEA DA"**

ENDIKA BARRENETXEA

**"PILOTARI BIRIBILA DA, PENTSAMOLDE IRABAZLE IKARAGARRIKOA"**

KOTETO EZKURRA



Ansa. ORIAMENDI

## Masters txapelketako finala jokatuko du Ansa

**ERREMONTEA** Azpiroz eta Barrenetxea IV garaituta, Kutxabank Masters-a irabazteko hautagaia da

**Erredakzioa** URNIETA

Otsailaren 8ko finalean Imanol Ansa izango da Galarretan, ligaxkako lehen bi partidatan Azpiroz eta Barrenetxea IV aise irabazi ondoren. Aurkari nork izango duen jakitea besterik ez da falta, eta zalantza hori asteburu honetan argituko da. Izan ere, Azpirozen eta Barrenetxea IVren arteko lehiak erabakiko da. Aurreko asteburuan, Ansa konfiantza handiz ari dela sumatu zen. Azkenerako, 30-21 gailendu zen. Oriamendik kronikan jaso duenez, "ia akatsik egin gabeko partida" egin zuen urnietarrak.

BARRETERAK ENTRADAS

**OTSAILAK 1**  
Larunbata

15:15 etik aurrera  
Galarreta Jal Alai  
Hernani

**1. Partida (3 setera)**  
SEGUROLA • JUANENEA vs ALDABE • LARRAÑAGA

Kutxabank Masters Txapelketa (30 tantora)  
**BARRENETXEA IV vs AZPIROZ**

**3. Partida (3 setera)**  
GOIKOETXEA V • MARTIRENA vs JABALERA • AIESTARAN VI

**eitb**

ORIAMENDI | ERREMONTEA BIZIRIK

Orona | VOLVO | sukia | AIURRI

AIURRI





Aurreko asteburuko partida, Allurralde kiroldegian. AIURRI

# Hirugarren postua helburu, Euskal Ligan

**ESKUBALOIA** Maila txukuna ematen ari da Andoaingo taldea, Euskadiko senior emakumezkoen txapelketan. Gabonetako geldialdiaren ostean, bi jardunaldi jokatu dituzte eta bietan garaipena eskuratu dute. Asteburuan garrantzi handiko partida jokatuko dute

## Erredakzioa ANDOAIN

Euskal Ligako bigarren itzuliarri hasiera eman zioten aurreko asteburuan eta Andoaingo taldeak garaipen berria eskuratu zuen Zuazoren aurka (32-28). 2025ari bikain ekin diete andoaindarrek, bitik bi garaipen eskuratu. Lehen itzuliko azken jardunaldian eta bigarreneko lehenean lortu dute garaipen bana.

## SASKIBALOIA

PARTAIDETTZA LIGA, 12. jardunaldia:  
LEIZARAN LANBROA-ZUAZO 32-28

## SAILKAPENA

1	URDANETA	22 p.
2	EREINTZA	20 p.
3	LEIZARAN LANBROA	16 p.
4	URDAIBAI BILBOATS	16 p.
5	IRAULI BOSTEKO	14 p.
6	MALAPE ELGOIBAR	14 p.

## Urdaibai-Leizaran Lanbroa, asteburu honetan

Sailkapenean parez pare ari dira Urdaibai eta Leizaran Lanbroa, eta, asteburu honetan, elkarren aurka ariko diren bigarren aldia izango da. Andoaindarrentzat bada erronka, urrian Allurralden galdu egin baitzuten partida (28-31). Asteburuko irabazleak hirugarren postua finkatuko du.

## Urteko lehen bi partidatan garaipena



Une honetan taldea hirugarren postuan da sailkapenean. AIURRI

**Joera ona** Urtea amaitu aurretik sailkapenean atzetik datozen Irauli eta Malaperen aurka galdu zuten. 2025ari, ordea, garaipenaren bidetik ekin diote. Bitik bi lortu dituzte.



Erronka ez da txikia: datozen hamar partidatan aurrealdean irautea. AIURRI

**Azken txanpa** Hamar jardunaldi baino ez dira falta Ligari amaiera emateko eta, une honetan, sailkapeneko hirugarren postuari eustea ez litzateke batere txarra izango.

Izan ere, Irauli eta Malape – sailkapenean 5. eta 6. postuan, hurrenez hurren– elkarren aurka ariko dira. Beraz, jardunaldi honetan aurrekaldeko lehen hiru postuak finkatzeko jardunaldi

baliagarria izango da. Urdaibai taldeak, Ligan, Leizaran Lanbroak baino gol gehiago sartu ditu. Kontrara, Urdaibaik badu ageriko ahuldadea: gol gehien jaso duen taldea da.

## Buruntzaldea IKT taldekoak, Azpeitian

**IGERIKETA** Kerman Miguel eta Aitor Ormazabal alebin mailako teknifikazio sarian parte hartzen aritu ziren, aurreko asteburuan. Biak goiz eta arratsaldean aritu ziren lehen, hainbat probatan. Jardunaldi berriaren zain dira honezkeroko. Datorren otsailaren 15ean izango da, Lasarte-Orian.



BURUNTZALDEA IKT



andoainDARRA  
euskaraz





Urnietarren jaurtiketa ikusgarria, aurreko asteburuan. UKE

## Urnietako senior mailako porrot bikoitza

**ESKUBALOIA** 1. eta 2. mailan ari dira, hurrenez hurren, Urnieta Artola harategia eta Urnieta Guria jatetxea taldeak

### Erredakzioa URNIETA

Ez da jardunaldi ona izan Urnietako senior mailako taldeentzat. Urnieta Artola Harategia lurraldeko 1. mailako taldeak Soraluez BKEren kantxan jokatu zuen larunbat arratsaldean. Partida parekatu baten ondoren galdu egin zuten (21-19).

Urnietako Guria Jatetxearen porrota Bera Beraren aurka izan zen. Partidan sartuta denbora luzez egon arren, galdu egin zuten (18-27). Ez zioten ondo ekin partidari eta hasiera txarrak zigortu zituen. Hurrengo partidaren lehen itzulia osatuko dute.

### ESKUBALOIA

LURRALDEKO 1. MAILA, 13. jardunaldia:  
SORALUCE BKE – UKE **21-19**

### SAILKAPENA

1	HONDARRIBIA BIDASOA	22 p.
2	EIBAR B	17 p.
7	URNIETA ARTOLA	14 p.

LURRALDEKO 2. MAILA, 13. jardunaldia:  
UKE – BERA BERA **18-27**

### SAILKAPENA

1	PULPO	26 p.
2	BERA BERA	19 p.
3	DONIBANE	18 p.
6	URNIETA GURIA	8 p.

## Partaidetza Haundi ligan ari dira saskiko bi talde

**SASKIBALOIA** Lehen postuan dira Plastigaur Imazeko neskek. Akerbeltz mutilen ligaxka abiatzear da

### Erredakzioa ANDOAIN

Infantil mailako bi talde partaidetzako ligan aurrera doaz eta igoerako ligaxka jokatzeko ari dira. Plastigaur Imaz Haundi nesken taldea da eta laugarren jardunaldian lidertzan da. Mutilen taldea, Akerbeltz Haundi taldeak asteburuan ekingo dio igoerako ligaxkari. Azpeitian izango da, larunbat honetan, 12:30ean hasita. Urbitarte ISB Haundi taldearen aurka ariko dira.

### SASKIBALOIA

INFANTIL HAUNDI, 4. jardunaldia:  
PLASTIGAUER IMAZ-BERA BERA **45-32**

### SAILKAPENA

1	PLASTIGAUER IMAZ	7 p.
2	DECORAMIK	6 p.
3	ANDRAITZ	5 p.
4	ALOÑA MENDI	5 p.
10	ALDAPETA	5 p.

Asteburu honetan ez da jardunaldirik izango.

## Urteko lehen garaipena lortu du Leizaran Ernio taldeak

**ESKUBALOIA** Aurreko hiru jardunaldietan porrota ezagutu ostean, garaipena eskuratu zuen Allurralden

### Erredakzioa ANDOAIN

Abenduaren 15etik, Tolosa CF irabazi zuenetik, ez zuen garaipenik eskuratu Xabier Amianok zuzentzen duen taldeak. Laugarren saiakeran iritsi dira bi puntuak, sailkapenaren azken postuan dagoen Akar taberna garaituta (31-24). Euskal Ligan egin dute debuta andoaindarrek eta sailkapenaren atzealdean dira. Helburua, ezin bestela, mailari eustea da.

### ESKUBALOIA

EUSKAL LIGA, 15. jardunaldia:  
LEIZARAN ERNIO-ALKAR **31-24**

### SAILKAPENA

1	TXIKIPOLIT ZARAUTZ	26 p.
2	SAIZAR USURBIL	23 p.
3	PETRONOR MUSKIZ	22 p.
4	URDANETA	21 p.
10	LEIZARAN	9 p.

Asteburuan, Petronor Muskiz taldearen kantxan ariko da.

## Lidertgotzari eusten dio Euskalduna taldeak

**FUTBOLA** Gorengo mailako bigarren itzuliari garaipenarekin ekin diote andoaindarrek

### Erredakzioa ANDOAIN

Hamasei jardunalditan garaipen gehien eta porrot gutxien lortu dituen taldea da Euskalduna. Ondorioz, matematika zehatza da, sailkapenaren lehen postuan sendotzen ari da Gaztañagaren taldea. Aurreko asteburuan Usurbilen garaipen argia lortu zuen (1-4). Sailkapenean Santo Tomas Lizeoa dator atzetik, Roteta hirugarren sailkatua gainditu ostean (0-1).

### FUTBOLA

GORENGO MAILA, 16. jardunaldia:  
USURBIL-EUSKALDUNA **1-4**

### SAILKAPENA

1	EUSKALDUNA	36 p.
2	SANTO TOMAS LIZEOA	33 p.
3	ROTETA	29 p.
4	ORIOKO	27 p.
15	GETARIA	11 p.

Asteburuan, Euskalduna Getaria taldearen aurka ariko da.

## Roger Wesley belar-hockeyko munduko txapelketan izan da

**HOCKEYA** Sasoian jarraitzen du eta, Hego Afrikako txapelketan, Espainiako selekzioarekin aritu da



Wesley (zutik, 4.a ezkerretik hasita) Zelanda Berriari bi gol sartu zizkion egunean.

### Xabier Lasa ANDOAIN

Roger Wesley Andoaingo Kiwi Corner English akademiako irakasleak 65 urte ditu eta badira urte batzuk Atletico San Sebastian taldearekin liga ofizialetan jokatzeari utzi zionetik. Sasoiko dago, ordea, eta amorratzen egoten da ahal duen guztietan sticka (makila) hartzeko.

2019az geroztik Espainiako selekzioko beteranoren jokalaria da. Iazko urrian, esaterako, Lurmutur Hirian (Hegoafrika) jokatu zen munduko txapelketan, Espainiako +65 selekzioarekin aritu zen. Honatx bitxikeria, Zelanda Berriaren aurka bi gol sartu zituen hartan: "Bereziki motibatuta, bikain jokatu nuen, eta neurketako onenaren saria eman zidaten. Dena esatera, golak ez nituen ospatu, ez baitaukat ahaztuta nongotarra naizen".



UKE

## Garaipena eskuratu nahi dute

**FUTBOLA** Gorengo erregionalaren emakumezkoen ligan, Aiztondoren zelaietan galdu zuen Urnietak (2-1), aurreko asteburuan. Une honetan, UKE bosgarren postuan sailkatuta dago eta larunbat arratsaldeko 18:00tan gorritxoek Goierri Gorri B taldearen bisita jasoko dute. Sailkapenean azken aurreko postuan dira. Beraz, Urnietak badu garaipena eskuratzeko aukera.



## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## ANTZERKIA

## ANDOAIN "Miñan"

Ibrahima Balde eta Amets Arzallusen liburua oinarritzat harturik, Arte-Dramak ekoiztuta. **Urtarrilak 31, ostirala. 19:30, Bastero.**

## URNIETA Katagorriaren fabula

Hitzik gabeko ikuskizuna, La Baldufa konpainiaren eskutik. **Otsailak 2, igandea. 17:30, Sarobe. 3 euro.**

## ANDOAIN "Zorretan"

Hika teatro konpainiak zaintzari buruzko tragikomedia sortu du. **Otsailak 14, ostirala. 19:30, Bastero.**

## OSPAKIZUNA

## ANDOAIN Jaia Olagainen

Andoaingo Olagain auzoko eskolan egun osoko ospakizuna antolatuta dute, egitarau zabalarekin.

Egitaraua:

12:00 Maizorri txalaparta-taldea, Alberto Agirre abesbatza, txistulariak eta dantzariak.

14:30 Bazkaria: Entsalada, txerri masailak ardo beltzean patata purearekin erregosiak, kafea eta gazta-tarta.

Arratsaldean dantzaldia auzoko tabernan edo Musika Eskolan.

**Otsailak 1, larunbata.**

## BATZARRAK

## HERNANI Urteko batzarra

Urteko errepassoa egiteaz gain eta elkarteko diru kontuak onartu ostean, 2024ko martxoan hil zen Ixiar Arteaga omenduko dute, 25 urtez baserritarren alde egindako lana eskertu asmoz. Behi haragiaren merkatua ulertzeko Javier Lopezek hitzaldia emango du.

**Urtarrilak 31, ostirala. Orona.**

## ANDOAIN Euskaraldia

Udaberriko ekimena antolatzen hasteko bilera irekia.

**Otsailak 6, osteguna. 18:30, Urigain.**



Hiru urtetik gorako familia ikuskizuna da. LA BALDUFA

## URNIETA Katagorriaren fabula

Hitzik gabeko ikuskizuna, La Baldufa konpainiaren eskutik. Hauxe da antzezlanaz aurreratu daitekeena: Triku handia lasai bizi da haritz handi baten itzalean eta ingurukoak zaintzen ditu, munduaren zatitxo batez gozatzen duen bitartean. Egun batean, urtxintxa atsegin, bihurri eta jostalaria agertuko da. Elkarbizitza ez da erraza izango. Triku zaputza zein babeslea eta jakiteko gogoz dagoen urtxintxa ezagutuko ditu ikus-entzuleak. **Otsailak 2, igandea. 17:30, Sarobe. 3 euro.**



Santa Ageda bezperako kantu-erronda, iaz. AIURRI

## ANDOAIN Etxeberrieta plazatik abiatuko da aurtengoa

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatuta, kantu-errondaren edizio berria egingo dute Andoaingo kaleetan barrena. Aste honetan entseguetan aritu ostean, datorren asteartean biziberrituko dute Santa Ageda bezperako kantu-erronda.

**Otsailak 4, asteartea. 18:00, Etxeberrieta plaza.**

## EKIMENA

## URNIETA Poteo musikatua

"Urnietako gazteria gaztetxearen alde mugitzen" lemapean, poteo musikatua.

**Urtarrilak 31, ostirala. 18:00, San Juan plaza.**


## KANTUJIRA

## URNIETA Kantazaun

Hilabetea amaitzearekin batera, euskal kantagintza ardatz hartuta, kantu kalejira kalez kale ibiliko da.

**Urtarrilak 31, ostirala. 19:00, San Juan plaza.**

## ZINEMA



## ANDOAIN

## BASTERO

## Un dolor real

Otsailak 1, larunbata. 19:30.  
Otsailak 2, igandea. 19:30.  
Otsailak 3, asti. 17:00, 19:30.

## NIKO 3

Otsailak 1, larunbata. 17:00.  
Otsailak 2, igandea. 17:00.



## SINOPSIS

## Un dolor real (A real pain)

**Zuzendaria:** Jesse Eisenberg. **Aktoreak:** Jesse Eisenberg, Kieran Culkin, Will Sharpe, Jennifer Grey, Kurt Egyiawan, Ellora Torchia, Liza Sadovy, Olha Bosova... **Herrialdea:** AEB (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 89 m.

## Iragana deika

Bi lehengusu Poloniara joango dira amona hil ondoren, II. Mundu Gerra baino lehen non bizi izan zen ikusteko eta haren familia nondik datorren ulertzeko. Holokaustoaren bira egitera joango dira biak. Oscar sarietarako bi hautagaitza lortu ditu.



## SINOPSIS

## Niko. Mas alla de la aurora boreal

**Zuzendaria:** Kari Juusonen, Jørgen Lerdam. **Herrialdea:** Finlandia (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Marrazki bizidunak. **Iraupena:** 86 m.

## Marrazki bizidunak

Niko elur-orein gazte hegalaria da eta Santa Clausen lerako taldearekin bat egitea du amets.







AIURRI

## Zuberoako saskiaren irabazlea

Aurreko asteetan, abian jarri genuen Zuberoako saskiaren zozketa eta parte-hartze handia izan da. Zozketa egin eta gero, Anttoni Garmendia Sorrondegi izan da garaile. Gazta, gozoak eta bestelako produktuez hornituriko saski politak badu, beraz, irabazlea. On egin! Eta gainerakook, ez etsi, izango dira aukera berriak hurrengo asteetan.

## Miñan antzezlanaren zozketa

Ostiral honetan Artedramak azken urteotan gehien zabaldu den liburua eraman du Bastero Kulturguneko oholtzara. Arzallusek eta Baldek elkarrekin idatzitako Miñanen antzezlanaren ikusteko bi sarrera zozketatu genituen eta honako hau da irabazlea: Oihana Olalde Garcia.



ARTEDRAMA

## KOMUNITATEA

EUSKARALDIA ANDOINGO BATZORDEA

## Euskaraldia prestatzeko bilera



AIURRI

Maiatzaren 15etik maiatzaren 25era izango da Euskaraldiaren laugarren edizioa, ELKAR MUGITUZ EGINGO DUGU lemapean. Euskararen erabilera aktibatze mugimendua indartzea eta gizartearen eragitea du helburu Euskal Herriko ariketa sozialak, eta herritarroei dagokigu Euskaraldia gure herriko errealitatera egokitzea eta martxan jartzea.

Horregatik, otsailaren 6an (osteguna) arratsaldeko 18:30ean Urigain kultur etxean egingo den deialdian parte hartzeko deia egiten diegu herriko eragileei eta norbanakoei. Zuen parte-hartzea garrantzitsua da!

## Tripontziaren saridunak

Gure Eskuk saridunen berri eman du: "2025eko urtarrilaren 27an, Beasaingo notaritza egindako zozketan, Tripontziaren sari nagusia 13991 zenbakiaren 'Behe Nafarroa' serieari tokatu zaio; Getarian (Gipuzkoa) saldu da. Bigarren zenbaki sariduna 14061 da, eta Zumaian (Gipuzkoa) saldu da. Zorionak! Tripontziarekin, batzuk saridun eta denok irabazle!"



GURE ESKU

## ZORION-AGURRAK



ANDOAIN  
**Zorionak Manex!**  
Manex! astelehenean, otsailak 3, bost urte beteko dituzu. Orain bezain jator eta alai jarraitu eta ZORIONAK zure familiaren partetik.



ANDOAIN  
**Zorionak Iker eta Haitz!!!**  
12 eta 9 urte! Zein handiak egiten ari zaren. Oso harro gaude zuetaz!!! Izugarri maite zaituztegu!!! Muxu potoloak! Amatxo, Aitaxo eta Hegoa.

## Egunean Behin 17D

Aste honetan abiatu da euskarazko app ezagunaren denboraldi berria eta, ondorioz, Aiurri taldean jokatzeko aukera eskura dute Andoaingo eta Urrietako irakurleek. Izan ere, denboraldiz denboraldi, ehunka partaide elkartu ohi ditu Aiurri taldeak. Oraingoan, apirilaren 7an banatuko ditu Aiurri taldeari dagozkion sariak. Behin denboraldia amaituta, beraz.

## Aiurrikide izatea %30 merkeago

Aiurrik **lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena** jaso du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik.

Aiurriko harpidedun zaren horri, **zerga onurak ezarriko zaizkizu 2024ko jardueran** Aiurri egin diozun ekarpenarengatik.

Horrenbestez, zure kuota **%30 merkatuko** zaizu errenta aitortpena egiterakoan.



**Okm:**  
batzen gaituen distantzia

Egin zaituzte aiurrikide

**AIURRI KIDE**



# Ekimenez beteriko astea, Kantazaun taldearena

Agenda estua dute Urnietako kantariak: urtarrilaren 30ean, AEKren Zilegi Eskolan, Lurdes Iriondo eta Xabier Lete gogoan hartuko dituzte; urtarrilaren 31n kalez kale ibiliko dira, kalejiran; eta, otsailaren 4an, Santa Ageda bezperako kantu-erronda antolatu dute



Santa Ageda bezperako kantu-erronda, iaz ateratako argazkian. AIURRI

## Erredakzioa URNIETA

Urnietako kultur bizitzan Kantazaun taldea ekimen bizikoa da eta, egun hauetan, jendaurreko saioak biderkatu egingo dituzte. Hilaren amaierako kalejiraz gain, beste bi ekimenetan parte hartu baitute. Astearen hasiera entseguetarako baliatu dute, hilaren amaierako kalejira eta otsailaren 4a gertu baitaude. Izan ere, Santa Ageda bezperako kantu-erronda egun seinalatua da Urnietako kantariarentzat: euskal kultur gauaren parekoa da Santa Eskean irte-teko eguna.

## Hiru hitzordu, bost egunetan

Ostegun honetan, AEKren Zilegi Eskolaren barnean, Lurdes Iriondoren eta Xabier Leteren kantagintzan oinarrituriko saio berezia eskainiko dute Lekaio kultur etxean.

Biharamunean, hilabete amaierako kalejira egingo dute. Ohi bezala, iluntzeko 19:00tan abiatuko dira San Juan plazatik. Bidean, udalerriko hainbat txokotan kantari ariko dira.

Bost eguneko jardueren artean, hirugarrena, Santa Ageda Bez-

## Iriondo eta Lete, gogoan

Ostegun honetan (urtarrilak 30), arratsaldeko 18:00etan hasita, Kantazauneko lagunek Kantagintza-tailerra emango dute Lekaion. Urnietako AEK-k antolatutako saioa da, Zilegi Eskola zikloaren baitan burutuko dena. Ekintza bereziak antolatu ohi dituzte eta honako hau halaxe izango da; izan ere, Lurdes Iriondo eta Xabier Lete sortzaileen gaineko saioa prestatu dute.

perako kantu erronda izango da. Datorren otsailaren 4an San Juan plazatik abiatuko dira, arratsaldeko 17:00tan hasita. Neguko ospakizunetako bat da Santa Ageda bezperakoa. Aurretik, Kandelaria (otsailak 2) eta San Blas (otsailak 3) ospatzen dira hainbat txokotan.

Adam, Errenteria  
24/11/18 Donostia Ospitalea

Gipuzkoa egunero  
sortzen da.

Pertsonen ongizate integral handieneko  
lurraldea izatea da gure asmoa.

**GIPUZKOA**  
Ekin. Zaindu. Bizi.